

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Botiketako Madoff Scott S. Reuben da: esan zure medikuari

Hemengo doktore askok oraindik ez dakien arren, sendagaien munduan sekulako eskandaloa dabil. “Lyrica”, “Celebrex” eta “Effexor” botikak saltzeko farmaindustriak erakusten zituen ikerketa nagusietako baten egileak iruzur egin zuela jakin da. Metastasi baten seinale.

DOKTOREAK ONARTU DU IRUZURRA zirela oinazearentzako botikez egin-dako ikerketak. Izenburu hori ipini zion *The New York Times* egunkariak Scott S. Reuben-en kasuari buruzko albisteari, martxoaren 10ean. Frantsesez botikagintzako industriaz okupatzen den *Pharmacritique* blogak berriz honela titulatu du: “Séisme en algologie et en anesthésie: fraude scientifique majeure de Scott Reuben, financé surtout par Pfizer, concernant l’efficacité antalgique de Lyrica, Celebrex, Efeffor...”. Eta lehenbiziko lerroetan: “Mundu mailan analgesian pionero zena orain ikusi da benetan zela ‘medikuntzako Madoff bat’, sistemaren produktu hutsa”.

Scott S. Reuben anestesista eta algologoa (medikuntzan algologia da oinazeaz okupatzen den saila) historian sartu da bere iruzurrarekin. Doktorea erreferentzia nagusia zen operazio osteko oinazeetan eta horien kronifikazioan. *Journal of Clinical Anesthesia*, *Anesthesiology*, *Anesthesia and Analgesia* eta gisako beste argitalpen berezitueta artikulua sorta ageri dira Scott S. Reubenek sinatuak, eta are agiri gehiagotan aipatzen dira haren ikerketak maila goreneko bibliografiaz.

Orain jakin denez, gutxienez horietako 21 erabat faltsututa daude, atzean ez daukatelarik inolako iker-

keta lanik. Paper guztiok demostratzen dute, ustez, operazio ondorengo minetarako Celebrex, Lyrica eta Pfizer konpainiako beste produktuak primerakoak zirela. Gauza bera saiatu zen demostratzen, antza, Merck konpainiaren Vioxx antiinflamatorio famatuaren mesedetan.

Gaur 51 urte dauzkan Reuben doktorearen lanek garrantzia izan dute aipatu kirurgia osteko oinazeon tratamenduetan. Emaitzak berme handiko aldizkarietan plazaratzen zituenez, inork ez zion sekula aurpegiatu Reubeni ea zergatik kasu guztietan emaitza hain onak erakusten zituzten pagatzaile zituen Pfizer konpainiaren botikek. Eta botikei gero eta aplikazio ugariago aurkitu zitzaizkien antiinflamatorio izate hutsetik haratago, baita epilepsia artatzeko ere.

Anesthesia & Analgesia aldizkari erredaktore buruak idatzi du Reubenek: “Operazio osteko oinazeetan ikertzailerik emankorrenetakoa zen (...) iruzurrak atal honetan daukagun ezagutzen sekulako atzerakada dakar”. Suitzako *Bluwin*-en idatzi dute: “Kirurgia ondoko oinazearen artatzean Reubenek ikerketek eragin handia izan dute, mundu osoko milioika gaixotaz ari gara”. Aldizkarian bertan argitzen da Reubenek agiri munduko artritis eta artrosidunek hain ondo ezagutzen dituzten

Argazki handia Britainia Handiko George House Trust erakundearen webgunetik hartuta dago. Botikagintzan dagoen negozio erraldoiaren alegoria da. Erretratuko da erreportajea aipatzen den Scott S. Reuben mediku eta ikerlaria. 51 urteko gizonak sekulako izena egina zuen oinazea artatzeko tratamenduen ikerketan... harik eta agertu den arte hark publikatutako azterketen artean gutxienez 21 inolako ikerketarik egin gabe idatziak izan zirela. Fama handiko antiinflamatorio eta immunosupresoreak erreumatologiaz gain bestelako minetan usatzeari abantailak erakutsi ditu Reubenek. Zein markako botikenak? Kasualitatez, Reuben bera hizlari enplegatzen zuen eta ikerketak finantzatzen zizkion farmaziako korporazioak ekoizten dituenak.

COX-2 motako botiketaren milioika dolarreko etekinak ekarri dizkietela Pfizer konpainiari (Celebrex da bere botika) eta Mercki (Vioxx).

Reuben doktoreari ikerketa eta eskola emate lan guztiak kendu dizkiote Baystate Medical Center-en eta Tufts University-n, biak Springfielden, AEBetako Massachusettsen.

Scientific American aldizkariak “Medikuntzako Madoff” iruzurrak balio beharko luke auzitan jartzeko munduan zehar milioika gaixori ematen zaizkien botika horien balizko onurak. Baina horretarako munduko sendagileek informazio garbia jaso beharko lukete eta ez egon botiken ekoizleen informazioetan itota. Ez daudenean korporazioek zuzen edo zeharka erosita.

Botikagileek lokarrarazita

*Pharmacritique*ek salatu duen beste eskandalo batek erakusten du botikagileen lotsagabekeria noraino iritsi daitekeen. sistemak nola funtzionatzen duen. Apirilaren 30eko zenbakian *The Scientist* aldizkariak azaldu du Merck konpainiaren eta Elsevier argitaletxearen artean aldizkari mediku faltsu bat kaleratu izan dutela. Ikusi xehetasunak.

Merck da munduko farmazia industriarik handienetakoa. Elsevier argitaldaria holandarrak plazaratzen ditu medikuntza alorreko aldizkari



prestijiodun mordoa; Elsevier markak berekin darama berme antzeko bat osasungintzan. Biek sortu zuten *The Australasian Journal of Bone and Joint Medicine*. Titulu horren azpian biltzen ziren botiken salmenta legezkoan egiten diren erraldoi handien ezaugarri nagusiak.

Hasteko zientifiko itxuraren babesean –titulua bera, itxura, kolaboratzaileen maila eta ospea, eta beste– funtsean propaganda hutsa zen kazeta. Fosamax eta Vioxx saldu nahi zituen. Vioxx antiinflamatorio ezaguna da, leku askotan debekatu dutena odol zirkulazioan arazoak eragin dituelako. Fosamax bifosfonato bat da, osteoporosia duten gaixoei agintzen zaiena kaltzioa hezurretan atxikitzen lagun diezaien.

Aldizkariaren lehen zenbakian luze eta zabal aipatzen dituzte osteoporosiaren kalteak, densitometriak egitearen garrantzia eta beste. Gai horien inguruan aditu independenteen artean eztabaida handiak direla esan beharko litzateke, baina aipatze hutsean utziko dugu. Jakina, Mercen produktuak, dio aldizkarian zuzeneko eta zeharkako publizitateak, erdiz erdi laguntzen du osteoporosia konpontzen.

Nork idatzi du aldizkaria? Bertan artikulatu burutsuak plazaratu dituzten mediku eta ikerlari famatuek eskuak garbituko dituzte, haien erantzukizuna iritzi atal mugatuetera mugatzen da. Nahiz eta ez duten aitortuko gehienek lotura eskutak dituztela botika horiek ekoizten

dituen industriarekin. Hauek finantzatzen dituzte beren ikerketak, hitzaldiak ordaintzen dizkiete, bidaia, hauei esker gizentzen dute curriculum, eta abar luzea.

Baina aldizkariotan *guest authors* edo idazle famatuen artikuluek gainerako guztia, kazetaren mamia, nork idatzi eta orraztu du? “Beltzek”, dio *Pharmacritiquek*, “negroek”; ingelesez *ghostwriter* deituek, idazle fantasmek. Bestek sinatzeko lan isil eta kontrolatua egiten duten erredaktoreek. Horrela, eskandalua baldin bada, *guest authors* distiratsuek ezer ez dakite.

The Scientist galdezka joan zaio AEBetako kontsumitzaileen interesak defenditzen dituen Public Citizen erakundearen lehendakariordeari. Peter Lurie-k nabarmendu du aipatu sasi-aldizkaria ez dela hain bitxia, antzeko aldizkari asko sortzen dutela farmaziako korporazio handiek, zientifiko itxura daukaten kazetak, medikuei bisita egiten dieten komertzialek daramatzatenak. Sartu gabe medikuntza alorreko doaneko prentsan, honetan informazio itxurarekin publizitatea joatea arras ohikoa baita.

Pharmacritique irakurleak aurki dezake medikuen erabakiak baldintzatzeko industriak darabiltzan martingalen informazioa. Baina horretara jarrita, familiako medikuek berak esplikatuko lioke nola funtzionatzen duen kateak. Galdetu ea zer dakien: emaiozu paper hau medikuari. ■

www.argia.com/nethurbil.php helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.





ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
zinkunegi@euskalnet.net

zuri begira